



Haur Hezkuntza

3. Modulua: Komunikazio gaitasunak DIZIPLINARTEKO LANA (DAL) EGITEKO GIDA

2016-2017

AURKIBIDEA

1. DALaren aurkezpena. Arautegia.....	4
2. Ebaluazioa: gaitasunak eta ebaluazio irizpideak	9
3. Lanaren garapena	15
4. Eranskinak	17

1. DALaren aurkezpena. Arautegia

1.1. DALaren aurkezpena

Komunikazioaren eta informazioaren aro berri honetan ikusten ari gara nola titulazioak eta ikasketa planak berriz planteatzen diren, batez ere gizartearen eskakizunei eta Europako proposamen berriei erantzuteko. Egoera horrek irakasleen hasierako prestakuntza berriz pentsatzea eta irakaskuntza ulertzeko moduan aldaketa batzuk egitea dakar.

Lanbide horrek etorkizunean prestakuntza sendoagoa eta konplexuagoa eskatuko die oraingo ikasleei, bizi dugun errealitate sozial eta kulturalean integratua eta "ikasten ikasi" printzipioan oinarritua, ikasketa prozesu aberasgarri gisa ulertuta eta arreta ikasleengan jarrita.

Idea hori abiapuntutzat hartuta, Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolak beste prestakuntza egitura bat hautatu du, diziplina elkarketaren ordeztuz diziplinartekotasuna sustatzeko eta banakako lanaren ordeztuz, elkarlana proposatzea. Horregatik aukeratu dugu modulu egitura eta metodologia aktiboen sistema hezkuntzako titulazioetarako, lan munduko benetako egoerak edo arazoak konpontzera bideratutako irakaskuntza dutelako oinarri.

Haur Hezkuntzako 2. mailaren hasieran egiten da hirugarren modulua, eta komunikazio gaitasunak garatzeari buruzko lau irakasgaik osatuta dago. Gaitasun horiek oinarritzat jotzen dira edozein mailatako irakasleen lanerako, baina bereziki garrantzitsuak dira haurtzaroan, aldi horretan arlo afektiboa oso presente dagoelako eta gerora eragin handia duelako ikasleen garapen pertsonalean eta akademikoan.

1.2. Proiektuen bidezko Ikasketa (PBI)

Metodologia didaktiko honek ezagutzaren ikuspegi globala hartzen du abiapuntu eta pentsamenduaren prozesu osoa biltzen du bere baitan.

Gainontzeko metodologia aktiboetan bezala, proiektuen garapenaren oinarria filosofia jakina da; filosofia horren arabera, kontzeptuak ondorio behagarrien bidez ulertzen dira eta, hortaz, ikasteak gauzekin kontaktu zuzena izatea eskatzen du.

Ikasleak egoera jakin batzuetan jarri eta ikasitako kontzeptuak berreskuratu, ulertu eta erabiltzea du helburu, eta tresna horien bidez ikasleek arazoak konpondu edo bizi diren gizarteari hobekuntza proposamenak egitea.

Arazoen kasuan bezala, egin beharreko lana nahiko zabala denez gero, Proiektuen Bidezko metodologia aktiboan hainbat fase daude: jarraitu beharreko urratsak planteatu, proiektuaren garapena planifikatu, lan taldean ardurak banatu, teoria aplikatu, planteatutako arazoaren konponbidea proposatu, proposamen bat garatu, bestelako aukeren edo garapen bideen

bideragarritasuna aztertu, garapen aukerarik egokiena aukeratu eta proiektuaren garapenean hartutako erabakiak justifikatu.

Fernando Hernándezen arabera (1998), "Lan proiektuak eskolatzearen helburua ulertzeko modu bat da, ulermena helburutzat duen irakaskuntzan oinarritua. Horrek esan nahi du ezinbestekoa dela ikasleek zentzuzkotzat jotzen duten ikerketa prozesu batean parte hartzea (ez erraza delako edo gustatzen zaielako) eta prozesu horretan ikasketa estrategia desberdinak erabiltzea; euren ikasketaren planifikazio prozesuan parte hartzeko aukera dute, eta hori lagungarri izango zaie malguak izateko, "inor" aintzat hartzeko eta beren ingurune pertsonala eta kulturala ulertzeko. Jarrera horrek errealitatea interpretatzen laguntzen du eta dogmatismoaren aurka doa. Mota honetako proiektuek eskolako ezagutza beste modu batean ulertzera garamatzate; errealitatea interpretatzea dute oinarri eta ikasle eta irakasleen bizitzen arteko harremanak sortzera eta lantzen ari diren diziplinen eta diziplinartekoak ez diren bestelako jakintzen bidez lortutako ezagutzara daude bideratuta. Horren helburua da gai bat edo arazo bat aztertzean egindako prozesua ikertzeko, interpretatzeko eta aurkezteko estrategiak garatzea, gai horren konplexutasunak ikasleek eta irakasleek euren burua eta bizi diren mundua bera hobeto ezagutzen laguntzen baitu".

Proiektuen bidezko metodoak beste ikasteko eredu batzuek baino ikasketa esperientzia aberasgarriagoa eta benetakoagoa eman diezaieke ikasleei; izan ere, gauzak egiteko, elkarren menpekotasuna eta lankidetzaren funtsezkoak diren testuinguru sozial batean gertatzen da esperientzia hori. Testuinguru horrek pertsonen arteko gatazkei aurrea hartzeko eta konpontzeko bidea ematen die ikasleei. Laguntza giro horretan, ikasleek konfiantza hartzen dute beren trebetasun indibidualak garatzeko eta eskolaz harago dagoen mundurako prestatzen ditu.

1.3. Arautegia

DALa egiteaz salbuestea

- 1. Mugikortasun programetan parte hartzen ari diren ikasleek ez dute DALa egin beharrik izango, modulu oso batean matrikulatuta dauden kasuetan izan ezik.**
 - 2. Graduako ikasleek DALa egin beharko dute, baldin eta modulu bateko hiru irakasgaitan matrikulatuta badaude, gutxienez. Gainerako kasuetan, ikasleek ez dute DALa egin beharrik izango.**
 - 3. DALa egin behar ez dutenen kasuan, irakasgaiaren nota 10en gainean izango da, DALaren portzentajea aplikatu gabe.**
 - 4. Aldi berean bi modulu egin behar dituzten ikasleek (irakasgai batzuk baliozkotuta edo gainditu gabe dauzkatelako) irakasgai gehien egiteke dituzten moduluko DALa egin beharko dute soilik. Bi moduluetan egin beharreko irakasgai kopurua bera bada, goreneko mailako moduluan egingo dute DALa.**
- Aurreko kasuetako edozeinetan gomendatzen da moduluaren edo titulazioaren koordinatzailearekin hitz egitea, egoeraren berri emateko.**

Titulazioa modularra denez gero eta lanak diziplina arteko edukia duenez gero, ikasleak jarraikako ebaluazio sisteman parte hartu ezin badu justifikatutako arrazoiengatik (lan-arrazoiak, senideak beren kargura izatea, %33ko urritasuna edo hortik gorakoa, maila altuko kirolaria izatea, bidaiak egitea edo dedikazio handia eskatzen duen jarduera artistiko edo kulturalen bat garatzea, goi mailako beste ikasketa batzuekiko bateragarritasuna, kargu politiko, sindikal, elkarte edo GKEren bateko karguren batekiko bateragarritasuna edo bestelakoak), DAL horrekin erlazionatutako proposamena egin beharko du, eta ahoz defendatu, modulu bakoitzean horretarako zehaztuko den datan.

Egoera horretan dauden ikasleak moduluko koordinatzailearekin (edo titulazioko koordinatzailearekin) jarri beharko dira harremanetan azaroaren 2a baino lehen, eta honek behar dituzten informazioak emango dizkie, hala nola, lana entregatzeko eta defendatzeko data zein tokia; lan horretarako ez da egongo tutorerik eta ikasleak dagokion arloko irakaslearengana jo beharko du zalantzak argitzeko. Proba horren balioa modulu honetan DALari dagokion berdina izango da, hau da, 6 eta 7 kreditutako irakasgaietarako amaiera kalifikazioaren %16a eta 3koetako, %8a. DAL horren kalifikazioa ohiz kanpoko deialdira arte gordeko da (ekaina-uztaila).

1.4. Kronograma

1	Iraila	PRACTICUM I Aurkezpena eta hasierako formakuntza
2		PRACTICUM I
3		PRACTICUM I
4	Urria	PRACTICUM I
5		PRACTICUM I
6		Klase hasiera: urriaren 17an. 1. Modulu astea: Moduluaren aurkezpena eta lanaren planifikazioa
7	Azaroa	
8		
9		
10	Azaroa	Azaroaren 14tik-18ra. 2. Modulu astea: Lana gauzatzea
11		
12		
13	Abendua	
14		
15		Klase azken astea: abenduaren 19tik-23ra 2. Modulu astea: Azken informea eta aurkezpenak

1.5. Aurrez aurreko saioak eta tutoretzak.

Ikasleek DALa egiten duten bitartean aurrez aurreko saio batzuk egin beharko dituzte, bai ikaskide guztiekin bai taldekideekin. Saio horiek honela banatuko dira:

- **Diziplinarteko lanaren aurkezpena: talde handian, kurtsoko lehenengo astean.**
- **Tutoretza saioak: tutoreak bere taldearekin egingo ditu. Talde bakoitzak lan egutegi bat ezarriko du, tutoretza saioak noiz egingo diren eta lanak noiz entregatuko diren zehaztuz. Gutxienez, hiru tutoretza saio egingo dituzte:**
 - 1 Hasierako saioa: bi orduko saioa izango da gutxi gora behera, DALaren aurkezpenaren ostean. Helburua: taldea osatzea, egoera aukeratzea eta bertan parte hartzen duten elementuak definitzea eta kronograma egitea.**
 - 2 Segimendu saioa: galderak egin eta proiektua nola doan kontrolatuko da. Tutorearekin adostuko dira.**
 - 3 Ebaluaziorako saioa: (azken astean)**
- **Proiektuak aurkezteko saioa: lanaren aurkezpena eta defentsa ikaskideen aurrean. (azken astean)**

2. Ebaluazioa: gaitasunak eta ebaluazio irizpideak

2.1. Modulu guztien DALren gaitasun komunak

GAITASUNAK	EMATEKOAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK
Informazio eta komunikazio baliabideak (IKTak, bibliotekak, fonotekak, ...) kritikoki erabiltzea ezagutza iturrietara heltzeko eta komunikazio, ikaste, ikertze eta lan kooperatibo atazak errazteko.	Txosten idatzia	Informazio iturri oparoak erabiltzea Norberaren eraikuntza, ez plagioa Txosten idatzian erabilitako informazio eta komunikazio iturriak zuzen sartzea (APA arauak)
Ahoz eta idatziz zuzen egitea, adierazpide oparoak erabiliz	Ahozko Aurkezpena Txosten idatzia	Informazio iturri oparoak erabiltzea Zuzentasun linguistikoa (gramatikala eta ortografikoa). Gaiari eta adierazpen mailari dagozkien termino egokiak erabiltzea. Ideien aurkezpenean ordena, koherentzia eta logika izatea. Adierazten diren zati guztiak txonten idatzian sartzea.
	Ahozko aurkezpena	Zuzentasun linguistikoa (gramatikala eta fonetikoa). Gaiari eta adierazpen mailari dagozkien termino egokiak erabiltzea. Ideien aurkezpenean ordena, koherentzia eta logika izatea. Jariotasuna eta argitasuna azaltzean.
Estrategi didaktikoak diseinatzea gaitasun komunikatiboak aberasteko (ahozkoak, idatziak, ikusizkoak, gorputzezkoak, afektiboak eta musikalak) garapen integralerako	Txosten idatzia	Azken aurkezpenaren eta txosten idatziaren arteko koherentzia. Lengoaia adierazgarriak erabiltzea (musika, plastika eta gorpuzkerak).
	Ahozko aurkezpena	Komunikazio trebetasunak erakustea. Berba txandak errespetatzea.
Taldean lan egitea parte hartzea, ardura, autoestimua, sormena, adiskidantza, askatasuna, erlaxazioa, dibertsioa, bizipoza eta kontzentrazioa sustatuz unean uneko jardunetan.	Taldearen auto-ebaluazioa	Hasieratik lan talde moduan antolatu: lan taldearen helburuak adostea, funtzioak, denbora, guneak, gatazkei aurre egiteko erak, etab. Adostutako lan plan bat egitea eta berorri jarraitu, plana aldatu beharrezkoa izanez gero. Modulu gidari jarraitu. Epeak bete.

2.2. 3. Moduluaren ikaste emaitzak

- **Haur Hezkuntzako profesional gisa, egoera jakin baten komunikazio arazoa eta protagonista bakoitzak duen rola identifikatzen du.**
- **Badaki zer den ICTak egoki erabiltzea eskola inguruko eragileen arteko komunikazioan, bereziki Haur Hezkuntzan.**

<ul style="list-style-type: none"> - Ikastetxearen egiturak (formala eta ez formala) hezkuntza eragileen arteko komunikazioan duen garrantzia aztertzen eta baloratzen du. - Euskal Herriko gaur egungo familia egitura ezagutzen du eta badaki horrek eskolako komunikazioan zer-nolako eragina duen.
<ul style="list-style-type: none"> - Badaki familiekiko komunikazioa baloratzen, bere gizarte hezkuntzako dimentsioan. - Protagonista desberdinak ulertzen ditu, eta enpatia du haiekin, aintzat hartzen ditu haien ikuspuntuak eta haien emozioak eta sentimenduak identifikatzen ditu. - Faktore horiek eskolako giroan eta haurren garapen psikosozialean duten eragina kontuan hartzen du.
<ul style="list-style-type: none"> - Familiaren eta eskolaren arteko harreman funtzionala, orekatua, osasungarria eta eguneratua eraikitzen laguntzen du familiekin batera. - IKTak erabiltzen ditu informazio iturri gisa, informazioa kudeatzeko eta eskolako komunikazioa sustatzeko tresna gisa. - Familiekin komunikatzeko behar diren testu idatziak eta ahozko adierazpenak ekoizten ditu, dagokien formatua errespetatuz, hartzaileari eta egoerari egokituta, eta komunikazio helburua betetzeko behar den argitasunaz eta zuzentasunaz.

2.3. DALaren ebaluazioa.

Haur Hezkuntzako Titulazio Batzordeak adostutakoari jarraituz:

DALa diziplina arteko lana da eta ikasle guztiek derrigorrez bete behar dute. Horren ebaluazioa jarraitua izango da eta honetan oinarrituko da:

- Lan idatziak, adostutako datetan entregatuko direnak.
- Egindako lanaren ahozko aurkezpena.
- Tutoretza-saioak dagokion tutorearekin.

Hatsarre hauei jarraiturik lanaren ebaluazioa egiteko kontuan hartuko dira 2.5 puntu zehazten diren ematekoak eta puntu honetan behean zehaztutako irizpideak. Taldeek tutoreari aurkeztuko dizkiote ematekoak, adierazitako epean eta zehaztutako euskarri eta formatuan.

Aurkezpena eta ahozko defentsa ikaskideen aurrean egingo da. Aurkezpenaren formatua askea izango da (testua, ppt, bideoa...), betiere, aldez aurretik tutorearekin adostua; alabaina, idatzizko txosten bat ere aurkeztu beharko da. 15 eta 30 minutu artean iraungo du.

Aurkezpena egiteko Haur Hezkuntzarako diseinatutako proposamenaren zati bat aukeratuko da.

Testu idatziak direnean, ahal dela Arial 11 formatua erabiliko da, 1,5eko lerro-artearekin.

Oro har, ebaluazioa egiteko honako hauek hartuko dira kontuan: gidan adierazitako atal guztiak sartzea, gaiaren inguruko terminologia egoki erabiltzea, ortografia eta gramatika zuzena erabiltzea...

Horrez gain baloratuko da:

- Informazio iturri desberdinak erabiltzea.
- Taldea talde lanaren dinamikara egokitzea (txostenaren antolamendu koherentean islatuko da hori) eta hitzaldiak jarraitutasuna izatea.
- Ideiak ordenatuta, koherentziaz eta logikaz aurkeztea.
- Zentzu kritikoa eta sormena.

DALari emandako kalifikazioa 3. moduluko irakasgai guztien azken kalifikazioaren % 16 izango da.

Kalifikazioa honela osatuko da: taldearen autoebaluazioari % 25 dagokio, lanaren aurkezpenera joan diren ikaskideen ebaluazioari % 10, eta tutoreari % 65 (% 60 talde osoari eta % 5 ikasle bakoitzari).

DALa gainditzeko, gutxienez, 5 atera behar da 1etik 10era bitarteko eskalan. Lana gainditzen ez duten ikasleek ohiz kanpoko deialdian egin beharko dute.

2.4. Autoebaluazioa: TALDE-LANAREN HAUSNARKETA ETA EBALUAZIOA

Taldearen izena:

Kalifikazioa: (Zenbakitan)

Hausnartu beharreko gaiak:
Banakako hausnarketa: Nola sentitu zaren taldean Ni lan-saioetan egon naiz eta eskatutako lana bete dut Kolaborazio maila eta taldeko gainerako kideei emandako laguntza Zer ikasi dut?
Taldeari buruzko hausnarketa: Kontuan izaten dira kide guztien iritzi eta ikuspuntuak Lortu da kide guztien konpromisoa eta jarduera orekatuak izatea. Taldeen definitutako rolak errespetatzen dira. Bileretan adostutako lan-plana planifikatzen da eta proposatutako helburuak betetzen dira. Denek betetzen dute emandako lana aurreikusitako epean.

<p>Egitekoari buruzko hausnarketa: Burututako proiektua, aplikazio praktikoa izateaz gain, etorkizunean erabili daiteke. ABP metodologia ikasi dugu Irakasgai guztiak proiektuan islatu dira Gure aurkezpena honakoa izan da:</p>
<p>Etorkizunera begira: Aurkeztutako proiektuan – zer eta nola - eta dinamika lanean hobetu beharrekoak.</p>

2.5. Koebaluazioa: Klaseko kideek aurkezpenari egindako ebaluazioa.

EBALUATZEN DUEN TALDEAREN IZENA:				
EBALUATUTAKO TALDERAEN IZENA:				
Kategoriak:	1	2	3	GUZTIRA
1. Prestakuntza-maila				
2. Aurkezpenaren antolaketa				
3. Irakasgaien txertatze-maila				
4. Edukien kalitatea				
5. Ikus-entzunezko baliabideen erabilera eta kontrola				
6. Hizkuntzaren zuzentasuna				
GUZTIRA				

2.6. Lan modularren ebaluaketa irizpideak

FASEA	%	Ematekoa	Nahikoa	Ondo	Oso ondo
Talde eratzeari	5	1. Aktak	Aktak falta dira edo ez dagoz osorik	Akta guztiak eta atal nagusiak agertzen dira. (bertaratutakoak, adostutakoak, atazak..)	Aktak zehatzak dira eta talde lanerako erreminta lagungarriak dira.
1. Agertokia definitu eta egoera aztertu	5	2. Hasierako informea.	Ez du arazoa ez eta parte-hartzaileek identifikatzen. Ez du gutxienezko kontestualizaziorik egiten. Azaltzeko hipotesia ez da egokia.	Zailtasun mota identifikatzen du eta kontestualizazioa egokia da. Baina hipotesia partziala da edo osotasun falta agertzen du.	Zailtasun motak identifikatzen du. Kontestualizazioa egokia da denboran, egituran eta parte-hartzaileak identifikatzen. Hipotesiek egoera azaltzen dute aldagaiak konbinatzen: nor, zer, nori, nola...
1.2. Gogoeta eta dokumentazioa	20	3. Tarteko informea.	Erreferentzia bibliografiko gutxi erabili dira. Erreferentzi bibliografikoen zerrenda txarto eta erreferentzien integrazioa testua txarto edo ez eginda.	2.1. Erreferentzi bibliografiko nahiko erabili dira. Erreferentzi bibliografikoen zerrenda akatsak eta/edo testuan oso gutxi integratuak.	2.1. Erreferentzia bibliografiko ugari, era askotako eta aberatsak erabili dira. Erreferentzi bibliografikoen zerrenda eta testuan duen integrazioa egokia.
2. Produktua diseinatu eta landu			HHn komunikazioa hobetzeko helburua duen baliabidearen diseinua egiteko taldeak aurreikusten dituen jardueren plangintza denborala ez da agertzen..	Baliabidearen/produktuaren diseinua egiteko jarduera batzuk izendatzen dira baina ez daude sekuentziatuta modu egokian.	Baliabidearen/produktuaren diseinua egiteko taldeak aurreikusten dituen jarduerak ondo sekuentziatuak agertzen dira gidoi ordenatu batean, baita jardueren arduradunak ere.
3. Aurkezpena	20 15	4. Azken informea eta aurkezpena	Ikerlana burutzeko galdera-nagusiak ez dira aipatu ezta modu egokian azaldu edota arrazoitu: - Galdera nagusiak: helburuak, hartzaileak, arrazoiak, balizko aplikazio-eremuak.	Ikerlana burutzeko galdera-nagusi guztiak aipatu baino ez dira egin edota azaldu direnean batzuk ez dira modu egokian arrazoitu: - Galdera nagusiak: helburuak, hartzaileak, arrazoiak, balizko aplikazio-eremuak	Ikerlana burutzeko galdera-nagusiak modu egokian azaltzen eta arrazoitu dira: - Galdera nagusiak: helburuak, hartzaileak, arrazoiak, balizko aplikazio-eremuak
			Ahozko aurkezpenarako ikusi 3. errubrika		
4. Gogoeta eta Ebaluazioa	%25	5. Ebaluazioa	4 eta 5 errubrikak ikusi.		

2.7. Koebaluazioa: Klaseko kideek aurkezpenari egindako ebaluazioa.

KATEGORIAK	1	2	3
1. Prestakuntza-maila	Rideren batek aurkezpena irakurriz egin du edo batek baino gehiagok pasarte batzuk irakurri dituzte.	Aipua ez ziren pasarteak tarteka irakurri dira.	Aurkezpena oso ondo prestatu dute eta pasarteren bat irakurri bada aipuren bat edota aurkezpenari indarra emateko egin da. Gainera, birformulazioak, errepikapenak, konparazioak eta adibideak egokiak izan dira.
2. Aurkezpenaren antolaketa	Ideiak aurkezten dira antolatu gabe eta ezarritako denborari egokitu gabe.	Ideiak aurkezten dira nahiko antolatuak baina ez dute eskema argia jarraitzen eta ez dira egokitzen ezarritako denborari.	Ideiak aurkezten dira modu argian eta ondo antolatuak, eskema zehatza jarraituz; horrez gain errespetatzen da ezarritako denbora.
3. Irakasgaien txertatze-maila	Irakasgaietako lotura ez da batere garbia izan.	Irakasgai batzuen lotura egin dute, baina ez guztiena.	Irakasgai gehienak edo guztiak egoki harilkatu dira.
4. Edukien kalitatea	Informazio garrantzitsua aukeratu gabe dago; iritziak ematen dira argumentatu/justifikatu gabe (erreferentziarik ez); azalekoa eta trauskila da.	Informazio nabarmena aukeratuta dago baina argumentu nahikorik gabe (erreferentzia gutxi). Sakontasuna dago baina adibiderik gabe. Ez ditu jarraitzen formalitate arau egokiak.	Laburbiltzeko gaitasuna erakusten da: aspektu garrantzitsuenak aukeratu dira eta ondo justifikaturik daude (erreferentzia asko), modu objektiboan. Ideiak sakon aurkezten dira, zehaztasun eta adibideekin, eta formalitate arauak jarraituz.
5. Ikus-entzunezko baliabideen erabilera eta kontrola	Ikus-entzunezko baliabideak ez dira lagungarriak aurkezpena hobeto ulertzeko Letra txikia, ezin da irakurri...	Ikus-entzunezko baliabideek laguntzen dute aurkezpena hobeto ulertzeko, baina ez dira erabiltzen modu egokian (irudiak, soinua eta musika erlazionatu gabe, etab.) Informazio gehiegi...	Ikus-entzunezko baliabideak egokiak dira eta aurkezpena aberasten dute. Irudiak, grafikoak, testuak eta soinua egokiak dira proiektuaren aurkezpena hobetzeko.
6. Hizkuntzaren zuzentasuna	Ulermena oztopatzen duten akats linguistikoak. Ahoskera, doinua, zuzentasun maila morfosintaktikoa eta lexikoen aukeraketa eskasak eta ez-egokiak.	Ulermena oztopatzen ez duten akats linguistikoak. Ahoskera zuzena da baina komunztadura errakuntzak daude baita konektoreen erabilera ez egokia. Lexikoen aukeraketa egokia.	Akatsik gabeko jarduna. Lexiko zaindua, teknikoa eta egokia da. Zuzentasun gramatikala. Ahoskera zaindua eta doinu egokia.

3. Lanaren garapena

3.1. Galdera eragilea eta eszenatokiak

Zer egin dezakegu tutore moduan gure Haur Hezkuntzako ikasleen familiekin komunikazioa sustatzeko?

Ikasleek eszenatoki errealak edo asmatuikoak proposatu beharko dituzte, praktiketan ikusitakoaren arabera bai maila pertsonalean baita beste norbaiten bitartez ere. Eszenatoki horietan agertu behar dira Haur Hezkuntzaren testuinguruko hezkuntza eragile batzuen artean gerta daitekeen komunikazio-arazoren bat, hala nola:

Guraso berrien eskolarekiko lehen kontaktu eta harremanak.

- **Kurtsoan zehar gurasoekin bilerak.**
- **Gurasoekin bakarkako bilerak.**
- **Txango edo jarduera berezien etxerako oharrak.**
- **Harreman instituzionalak, ikastetxearen guraso elkarte, Udaletxea edo Hezkuntza Delegazioarekin.**

Taldeakide bakoitzak egoera bana proposatuko du eta taldean egoera bakoitzaren alde onak eta txarrak eztabaidatu beharko dira. Eztabaida horren nondik norakoak idatziz jasoko dira eta taldeak landuko duen egoera zergatik aukeratu duen arrazoitu beharko du.

Modulu-lan hau diziplina arteko lana denez gero, nabarmendu nahi dugu aukeratu den egoeraren zergatien nolakotasuna diziplina artekoa izan behar dela edo, beste era batera esanda, egoera aukeratzeko arrazoietan moduluan dauden lau irakasgaien gaietako arazo edo gaiak aipatu behar direla.

3.2. Faseak eta ematekoak

FASEA	Galdera eragileak	Zereginak	Ematekoak	%	Noiz- nola
Taldea eratzea	Nola eratuko dugu taldea?	Taldekideei rolak eta zereginak esleitzea.	1. Taldearen eraketaren eta bileren akta.	5	1. akta 1. astean. Gainerakoak azken txostenarekin batera.
1. Egoera definitu eta aztertu.	Zer egoera edo arazo dugu? Zer dakigu egoera horretaz?	Definitutako egoeraren azterketa egitea, parte hartzen duten eragile guztiak kontuan hartuta (familiak, ikasleak, irakasleak eta eskola).	2. Hasierako txostena: a. Egoera deskribatzea: elkar eragiten duten elementuak, mapa mental bat egin. b. Deskribatutako egoeraren galdera eragileari lehen erantzun bat ematea (hipotesia). c. Kronograma (lana planifikatzea).	5	Lehenengo asteko amaierako tutoretza saioan. Talde bat baino gehiago elkartzea interesgarritzat jo da. Irakasleak adieraziko du nork egingo duen aurkezpena. Taldeak beste talde batzuen ekarpenen bidez aberastea da kontua. Idatzizko euskarrian ere entregatuko da.
1.2. Gogoeta eta dokumentazioa	Zer egingo dugu? Zer jakin nahi/behar dugu? Nola lortuko dugu? Zer eraiki nahi/behar dugu? Zer jakin behar dugu eraikitze/egiteko?	Helburuak argitzea. Informazioa bilatzea, aukeratzea eta aztertzea, hainbat iturri erabilia. Eskoletara joan daitezke informazioa biltzera.	3. Tarteko txostena: a. Erabilitako materialen ekarpena labur deskribatzea (bibliografia/webgrafia, Eustat, elkarrizketak). b. Amaierako produktua diseinatzea. c. Planifikazioa moldatzea.	20	DALaren 2. astearen hasieran. Irakasleari entregatuko zaio, paperan, moodle bidez edo onartutako bestelako euskarriren bat erabilia. Ematekoaren aurkezpenaren aurretik tutoretza saio bat egitea komeni da.
2. Produktua diseinatzea eta lantzea.	Noren artean bideratu behar da informazioa eta/edo komunikazioa? Zer eduki eman nahi diogu? Zein balio sustatu nahi ditugu? Zeintzuk dira tresnarik egokienak?	Lanerako gidoia prestatzea eta egin beharreko ekintzak zehaztea. Produktua egitea.			
3. Aurkezpena.	Zer zentzutan laguntzen du eskolako komunikazioa eta elkarbizitza errazteko? Nola aurkeztuko dugu gure lana eta zer baliabide erabiliko dugu?	Emaitzak eta ekintzak aurkeztea.	4. Azken txostena eta aurkezpena (notaren % 5 ikasle bakoitzari emango zaio eta % 10 talde osoari).	20 15	DAL azken astean, lauhilabetearen bukaeran
4. Gogoeta eta ebaluazioa.	Zer ikasi dugu? Nolakoa izan da lan taldearen prozesua?	Egindakoari eta ikasitakoari buruzko gogoeta eta ebaluazioa.	5. Ebaluazioa.	35	

4. Eranskinak

1go eranskina: Ematekoak

1. ematekoa. Aktak: talde eraketarena eta bileren aktak.

Lan taldearen saioen erregistroa egitea da helburua.

Noiz eta nola:

Lehenengo akta 1. astean entregatuko da, eta gainerakoak azken txostenarekin batera.

Erabili beharreko formatua aldeztu aurretik adostuko da tutorearekin: paperan edo formatu elektronikoa.

Ebaluazioa:

Azken notaren % 5 balioko du, eta honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

Akta ereduak: puntu guztiak barne hartzen ditu.

Gutxieneko akta kopurua:

Aktaren edukia: beharrezkoak diren atal guztiak aipatu dira, edukia eta forma argiak dira.

Ba al dago lanaren inguruko gogoetarik?

2. ematekoa. Hasierako txostena.

Hiru atal ditu:

a. Egoeraren deskribapena: elkar eragiten duten elementuak aipatu eta mapa mentala egin.

b. Deskribatutako egoeraren galdera eragileari lehen erantzun bat ematea (hipotesia).

c. Kronograma (lana planifikatzea).

Noiz eta nola:

Ikaskideen aurrean egingo da (eta ahal dela bi irakasleren aurrean), posterren bidez. Irakasleak esango die ikasleei aurkezpen bakoitza nork egingo duen. Helburua da ikasleek beren jakintza sendotzea beste taldeen ekarpenekin. Idatzizko euskarria ere erabiliko da.

Ebaluazioa:

Lehenengo DAL astearen bukaerako tutoretza saioa. Talde bat baino gehiago eginez gero aberasgarria izango litzateke.

Orri kopurua (2-3).

Adierazpenak argia izan beharko du (mapa mentala, taula); elkar eragiten duten elementuen arteko harreman egokia ezarri beharko da.

Egoera azaltzen duen lehenengo hipotesiak deskribatutako egoeran elkar eragiten duten elementu guztiak bildu beharko ditu.

Lanaren plangintza: etapa eta zeregin guztiak jaso behar ditu. Hasierako plangintza orokorra izango da.

Formarekin lotutako zehaztasunak.

3. ematekoa. Tarteko txostena.

Hiru atal ditu:

<p>a. Erabilitako materialen ekarpena labur deskribatzea (bibliografia/webgrafia, Eustat, elkarrizketak).</p> <p>b. Azken produktua diseinatzea.</p> <p>c. Planifikazioa moldatzea.</p>
<p>Noiz eta nola: Enmateko hau DALANaren 2. astearen hasieran aurkeztuko zaio tutoreari, paperean, moodle bidez edo adostutako bestelako Emateko honen aurkezpenaren aurretik tutoretza saio bat egitea komeni da.</p>
<p>Ebaluazioa: Azken notaren % 20 balioko du, eta honako irizpide hauek kontuan hartuko dira: Iturri aniztasuna. Erabilitako materialen kalitatea. Sintesirako gaitasuna. Koherentzia. Diseinuaren egoerari eta ezarritako helburuei egokitua dago. Planifikazioa, antolaketa eta aurreikusitako zereginetarako epeen azterketa errealista.</p>
<p>4. ematekoa. Azken txostena eta aurkezpena.</p>
<p>Bi atal ditu:</p> <p>a. Azken txostena</p> <p>b. Ahozko aurkezpena</p>
<p>Noiz eta nola: DALaren azken astean. Aurkezpenaren formatua askea izango da (testua, ppt, bideoa...), irakaslearekin alde aurretik adostua, eta betiere oinarritzko gidoi idatzia egongo da.</p>
<p>Ebaluazioa: Txostenak azken notaren % 20 balioko du eta ahozko aurkezpenak % 15, eta bietan kalifikazioaren % 5 ikasle bakoitzari emango zaio eta % 10 talde osoari. Honako irizpide orokor hauek hartuko dira kontuan: moduluko eremu guztiak barne hartzea eta proposamena familiekiko komunikazioa sustatzeko egokia izatea. Aurkezpenari dagokionez, kontuan hartuko da: edukien kalitatea, erabilitako ikus-entzunezko euskarria, sormena eta irakasgaiak barne hartzea. 2. errubrikan zehatzago adierazten da.</p>
<p>5. ematekoa. Autoebaluazioa.</p>
<p>Helburua da taldekideek amaierako lanaren eta taldearen funtzionamenduaren eta dinamikaren ebaluazioa egitea.</p>
<p>Noiz eta nola: DALaren azken astearen bukaeran. Tutorearekin egingo den azkeneko saioan.</p>
<p>Ebaluazioa: Auto-ebaluazioak azken kalifikazioaren % 25 balioko du.</p>

2. Eranskina: Bibliografia

HERNÁNDEZ, F. (1998) "Repensar la función de la Escuela desde los proyectos de trabajo" *Patio, Revista Pedagógica*, 6, 26-31.

HERNÁNDEZ, F. (2000) "Los proyectos de trabajo: la necesidad de nuevas competencias para nuevas formas de racionalidad". *Educar*, 26, 39-51.

MORALES, P. (2007). "Nuevos roles de profesores y alumnos, nuevas formas de enseñar y de aprender". In Prieto, L. (koord.). *La enseñanza universitaria centrada en el aprendizaje*. Barcelona: Octaedro.